## Martutene

# Jaiak prest



Martuteneko Pilarika jaiak urriaren 11tik 15era egingo dira. Aurten jai batzorde berria osatu da, aurreko urteetako batzordeak ez zuelako jaiak antolatzeko ardura hartu nahi. Krisialdia, beraz, amaitu da.

*"Batzorde berria ama batzuen lanari esker sortu da. Amek ezezik gazte talde batek ekimenarekin bat egin du"*, adierazi digu Edurne Jabat feston antolaketan aritu den emakumeak. Berak adierazitakoaren arabera, dagoeneko egitaraua prest dago. Martutenetarrek laister batean eskuratu ahal izango dute urtero argitaratzen den egitarau-liburuska. *"Hari guztiak lotuta daude, azken ukituak besterik ez dira falta"*, dio Edurnek.

Edurnek egitarauko zenbait osagarri aurreratu dizkigu. *"Helduentzat Sagardo eguna, herri kirolak, jotak, areto dantza erakustaldia eta dantzaldiak egingo dira. Haurrentzak, berriz, jokoak, pailazoak eta magia ikuskizuna Txan handiarekin"*, diosku. Aurreko urteetan bezala, auzoko parkean bi txosna ipiniko dira: Gestorasena eta auzoko danborradarena, hain zuzen ere.

**Jai batzorde berria ama batzuei esker sortu da**

### Gazte Lokala zabalik

Udako etenaldiaren ondoren, zabalik da dagoeneko Martuteneko Gazte Lokala. Auzoko gazteek arratsaldeko 16.30etatik 20.30etara jo dezakete bertara. Hala ere, ikastaroak eta auzoko gazte-gune horrek antolatzen dituen bestelako jarduerak ez dira urrira arte hasiko. Hurrengo batean hemengo dizuegu horien guztien berri.



UNED-BERGARA
IKASTETXE ELKARTUA

Ikasle berrientzako aurreinskripzio epea urriaren 29erarte luzatu da.

**2000/01 Ikasturterako matrikula epeak**
Irailaren 19tik azaroaren 3ra

**INFORMAZIOA:**
UNED.Martin Agirre Deunaren Enparantza z/g. 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 90 33
E-mail.: info @ bergara.uned.es
Web: http://info.uned.es/ca-bergara

**MATRIKULARAKO ORDUTEGIA:**
Asteratetik ostiralera:
10'30-13'30 / 17'30-20'00
Larunbatetan (urrian hasita): 9'00-13'00

**DONOSTIAN MATRIKULATZEKO BULEGOA:**
"Koldo Mitxelena Kulturunean" (Urdaneta,9) irekiko da **matrikulatzeko** bulego bat **urrian**.
Ordutegia: asteartetik larunbatera 10'00-13'00







Narrika 3, 20003 DONOSTIA Tel.: 943 42 01 71
e-mail: uluwatu @clientes. euskaltel. es